

Andoni Agirrebeitia Abendibar  
(Amorebieta-Etxano, 1970)

Ezkonduta dago, eta seme bat dauka.

Euskalduna da.

Kimika Zientzietako ikasketak, Kimika eta Fisikako espezialitatea (EHU), eta Kalitatearen Kudeaketan aditua.

Bestelako prestakuntza: barne-prestatzailea; lidergoa; taldeen kudeaketa; antolaketa-, plangintza-, garapen- eta ebaluazio-sistemak.

### **SEKTORE PUBLIKOKO ESPERIENTZIA AIPAGARRIENA**

2015eko ekainetik hona:

- Amorebieta-Etxanoko alkate.
- "AIC-Automotive Intelligence Center" zentroaren patronatuko kidea.
- Gaztedi Durangaldea proiektuaren jarraipen-batzordeko kidea.
- «Urkiola Landa Garapena» garapen-agentziako kidea.

2011ko uztailetik 2015eko ekainera arte, Kultura, Kirol eta Euskara zinegotzia Amorebieta-Etxanoko Udalean. Urte horietan zehar, udalerriko kultura, kirola eta euskara kudeatzen dituen "Ametx" erakunde autonomoaren buru.

2007ko ekainetik 2011ko ekainera arte, ogasuneko eta ondareko zinegotzia Amorebieta-Etxanoko Udalean.

### **SEKTORE PRIBATUKO ESPERIENTZIA**

1995ean, familiaren enpresan hasi zen lanean, galdaragintza, forjaketa eta enpresen mantentze-lanen arloan.

1998an, Kalitateko zuzendari izendatu zuten "Walter Pack" enpresan: plastikoa moldekatze bidez eraldatzen duen enpresa bat.

2002an, "Industrias Bai" enpresan hasi zen lanean, Ekoizpen eta Kalitate zuzendari gisa, alanbrezko artikuluen fabrikazioaren arloan.

2003an, bulegoko materiala banatzeko negozio bat sortu zuen, berea.

2007an, Kukuma S. Kooperatibarekin aliantza bat osatu zuen, eta merkataritza-arduradun legez jardun.